# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

### 3635

**6/1993 LEGEA, urriaren 29koa, animaliak babestekoa.**

Euskadiko herritar guztiei jakinerazten zaie, Eusko Legebiltzarrak ondoko lege hau onartu duela:

**URRIAREN 29KO 6/1993 LEGEA, ANIMALIAK BABESTEKOA**

**Zioen adierazpena**

Gure inguruko gizarteen ekonomia-garapenak gizarte eta kulturaren garapen handiagoa ekarri du berekin. Era berean, animalien mundua osatzen duten izakienganako gero eta errespetu-eskari handiagoa ikusten da, batez ere gizakiarengandik hurbilago dauden eta gizakiarekin batera bizi diren animalienganakoa.

Europako Elkartea oso jabeturik dago animalienganako errespetu eta babes beharraz, eta hala ikus daiteke araubidezko erabakietan, hala nola 86/609/EEE Arteztarauean, saiakuntzarako eta zientziazko helburuetarako erabilitako animalien babesari buruzkoan; 90/18/EEE Arteztarauean, laborategiko ihardunen egokitasuna ikuskatzeari eta egiaztatzeari buruzkoan; 91/628/EEE Arteztarauean, animaliak garraiatzean babesteari buruzkoan, bai eta animaliak hiltzean babesteari buruzko Kontseiluaren Araudi Proposamenean (EEE) ere.

Euskadiko gizartearentzat gauza jakina eta ezaguna da animaliak errespetatu, defendatu eta babesteko oinarriak aitortzeko kontzientziazio-ekimena. Eta horrek, nazioarteko hitzarmen eta itunekin bat etorriz, lege-esparru egokia aldarrikatzea eskatzen du, orain arte ez da horrelakorik izan eta; lege-esparruak aipatutako oinarriak jaso, bermatu eta bultzatuko ditu, animalien jabeen edo edukitzaileen betebeharrak ezarriz, debekatu beharreko jarrerak zernolakotuz eta kasu bakoitzean ezarri behar diren zigorrak ohartemanez.

Are gehiago, lege honek gure gizartean dagoen kontzientziazioa areagotu nahi du, hain zuzen ere, jokabide gizatiarragoak eta gizarte modernorako egokiagoak diren jarrerak hartzera bultzatuko duen heziketarako oinarriak ezarriz.

Legearen I. idazpuruak izaera orokorreko erabakiak ezartzen ditu animalien elikaduraz, higieneaz, tratuaz, garraioaz eta salmentaz. Hala ere, lege honen esparrutik kanpo geratzen da basa fauna bere ingurunean babestea eta zaintzea, bai eta ehiza eta arrantzazko ekintzak ere, horiek, oso konplexuak eta zabalak iza-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

### 3635

**LEY 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.**

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

**LEY 6/1993, DE 29 DE OCTUBRE, DE PROTECCIÓN DE LOS ANIMALES**

**Exposición de motivos**

El desarrollo económico de las sociedades de nuestro entorno ha venido acompañado de la adquisición paralela de un mayor grado de desarrollo social y cultural, manifestado también por una cada vez más importante exigencia de respeto hacia los seres vivos que integran el mundo animal, y particularmente hacia aquellos animales que más cerca e íntimamente conviven con el hombre.

La Comunidad Europea ha tomado conciencia clara de la necesidad de dicha exigencia de respeto y protección a los animales, y así queda reflejado en disposiciones normativas tales como la Directiva 86/609/CEE, relativa a la protección de los animales utilizados para experimentación y otros fines científicos; Directiva 90/18/CEE, sobre inspección y verificación de las buenas prácticas de laboratorio; Directiva 91/628/CEE, sobre protección de los animales durante el transporte, así como la propuesta de reglamento (CEE) del Consejo relativo a la protección de los animales en el momento de su sacrificio o matanza.

La sociedad vasca no es ajena al movimiento de sensibilización en favor del reconocimiento de los principios de respeto, defensa y protección de los animales, lo que exige, en consonancia con la existencia de convenios y tratados internacionales en la materia, la promulgación de un marco legal adecuado, no existente hasta el momento, que recoja, garantice y promueva dichos principios, estableciendo las obligaciones de los propietarios o poseedores de animales, tipificando las conductas que han de estar proscritas y previendo las sanciones que en su caso han de imponerse.

Aún más, la presente ley persigue también aumentar esa sensibilidad ya existente en nuestra sociedad, mediante el establecimiento de las bases para una educación que promueva la adopción de comportamientos más humanitarios y propios de una sociedad moderna.

El título I de la ley establece unas disposiciones de carácter general en materia de alimentación, higiene, trato, transporte y venta de animales. No obstante, se excluye del ámbito de la ley la protección y conservación de la fauna silvestre en su medio natural y la regulación de las actividades cinegéticas y piscícolas,

nik, legedi berezia eskatzen dute eta.

II. idazpurua lege honek hartzen dituen animaliak edukitzeari eta identifikatzeari -horiek izatea hiri handietan nahikoa zabaldua baitago- eta higiene eta osasunezko zenbait baldintza betetzeari buruzkoa da. Animaliak etxebizitzetan edukitzeko joerak beste arazo bat sortarazi du, edukitzaileek animaliak baztertu uztea hain zuzen, etxean edukitzeari komenigarria eritzen ez diotenean; ekintza horrek zigor zorrotzak izango ditu eta animalia-biltegiak arau daitezen eskatuko da, sor litzaketen osasunezko arazoak ekidinez horrela. Laguntzako animalien haztegiek, salmenta-tokiek eta aldi batez edukitzeko tokiek izan behar dituzten baldintzak ere ezartzen dira.

III. idazpuruak animaliak babesteko eta aldezteko elkarteez eta horiek administrazioarekin izan behar dituzten harremanez dihardu.

IV. eta V. idazpuruek erroldatzeko, ikuskatzeko eta zaintzeko neurriak ezartzen dituzte eta legeak xedatutakoaren hausnenak zerrokatu eta hausnen bakoitzari dagokion zigorra arautzen.

## I. IDAZPURUA
### Xedapen orokorrak

1. atala.-

Lege honen helburua Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean dauden etxeko animaliak, etxekotuak eta basati gatibuak babesteko arauak ezartzea da, elkarte honetan erroldatuak egon ala ez, eta animalien jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein dela ere.

2. atala.-

1.- Lege honen ondorioetarako, bizi ahal izateko gizakiaren laguntza behar dutenak jotzen dira etxeko animaliatzat.

2.- Etxekotutako animaliak, basati eta jare jaioak izanik gizakia ikustera eta horren lagun izatera ohitu diren eta, bizirik iraun ahal izateko, behin betiko gizakiaren menpe daudenak dira.

3.- Animalia basati gatibuak, basati jaioak izanik gatibu bizitzera behartuta egon arren, etxekotzeko hezibiderik izan ez dutenak dira.

3. atala.-

1.- Lege honen esparrutik kanpo geratzen dira eta araubide berezia izango dute honako hauek:

a) Ehizak.

b) Arrantzak.

c) Basa fauna berezko inguruneen babesteak eta zaintzeak.

cuya complejidad y amplitud exige que sean objeto de una legislación específica.

El título II se refiere a la tenencia e identificación de los animales afectados por la presente Ley, frecuentes en los grandes núcleos de población, así como al cumplimiento de una serie de requisitos higiénico-sanitarios. La proliferación de este fenómeno ha hecho también patente la existencia de animales que son abandonados por sus poseedores cuando su mantenimiento es considerado inconveniente, lo que va a exigir que, además de castigarse severamente esta conducta, se regulen los centros de recogida de estos animales, evitando así los problemas sanitarios que pudieran ocasionar. Igualmente se establecen las condiciones de los centros de cría y venta y para el mantenimiento temporal de animales de compañía.

El título III hace referencia a las asociaciones de protección y defensa de los animales y sus relaciones con la Administración.

Los títulos IV y V respectivamente fijan las medidas de censado, inspección y vigilancia, y tipifican las infracciones a lo dispuesto por la ley, estableciendo sus correspondientes sanciones.

## TÍTULO I
### Disposiciones generales

Artículo 1.-

La presente ley tiene por objeto establecer normas para la protección de los animales domésticos, domesticados y salvajes en cautividad que se encuentren en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con independencia de que estuviesen o no censados o registrados en ella y sea cual fuere el lugar de residencia de sus dueños o poseedores.

Artículo 2.-

1.- Se entiende por animales domésticos, a los efectos de esta ley, aquellos que dependen de la mano del hombre para su subsistencia.

2.- Son animales domesticados aquellos que, habiendo nacido silvestres y libres, son acostumbrados a la vista y compañía del hombre, dependiendo definitivamente de éste para su subsistencia.

3.- Son animales salvajes en cautividad aquellos que, habiendo nacido silvestres, son sometidos a condiciones de cautiverio, pero no de aprendizaje para su domesticación.

Artículo 3.-

1.- Quedan fuera del ámbito de esta ley y se regirán por su normativa propia:

a) La caza.

b) La pesca.

c) La protección y conservación de la fauna silvestre en su medio natural.

d) Zezenek.

e) Animaliak esperimentazioko eta beste helburu zientifikoetarako erabiltzeak.

2.- Hala ere, basoko animalia gatibuei edo jatorrizko ingurunera itzultzeko xedearekin hazi dituzten animaliei ezarri ahal izango zaizkie lege honetako 4.1 eta 2. ataleko erabakiak eta, oro har, osasun-izaerakoak eta bazter uzteari, jasotzeari, barneratzeari, isolatzeari eta hiltzeari buruzkoak.

4. atala.-

1.- Animaliaren bat duenak higiene eta osasunezko baldintza egokietan eduki beharko du, aterperako leku egokia jarriz, janaria eta edaria emanez, albaitaritza-sorospena eta gorputz-ariketak egiteko aukera eskainiz eta bere espezie eta arrazaren behar fisiologiko eta etiologikoei dagokien moduko arreta eskainiz.

2.- Dena den, debekatua dago:

a) Animaliei tratu txarra ematea edo arrazoirik gabeko oinaze edo mina eta larritasuna sor diezaiekeen edozer gauza egitea.

b) Bazter uztea.

c) Bizi ahal izateko behar duten janaria ez ematea eta/edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren tokietan edukitzea.

d) Animaliei mozketak egitea, albaitarien ardurapean ezinbesteko arrazoiengatik, funtzionaltasunagatik edo arrazaren ezaugarriei eusteko, egiten direnak izan ezik.

e) Alkohola, drogak edo farmakoak ematea, edo kalte fisikoak edo psikikoak sor diezazkieketen edonolako manaiu artifizialak egitea, lehiaketaren batean emaitza hobeak lortzeko izan arren.

f) Animaliei ez dagozkien edo tratu iraingarria suposatzen duten jokabide eta jarrerak indarrez ezartzea.

g) Zakur eta oilar borrokak.

h) Kalean animaliak hiltzea, behar-beharrezko edo ezinbesteko izan ezik.

3.- Foru-aldundietako horretarako gai diren sailek tiroko elkarteei, bakoitzaren federazioaren artapean, usakume-tiraketako lehiaketak egiteko baimena eman ahal izango diete.

4.- Animaliak osasunezko arrazoiengatik edo hiltegian hil behar direnean, kontortea berehala galtzea

d) Los toros.

e) La utilización de animales para experimentación y otros fines científicos.

2.- No obstante, a los animales salvajes cautivos o los criados con la finalidad de ser devueltos a su medio natural les serán aplicables las disposiciones contenidas en el artículo 4. 1 y 2 de la presente ley, y en general las de carácter sanitario y las relativas al régimen de abandono, recogida, internamiento, aislamiento o sacrificio.

Artículo 4.-

1.- El poseedor de un animal deberá mantenerlo en buenas condiciones higiénico-sanitarias, procurándole instalaciones adecuadas para su cobijo, proporcionándole alimentación y bebida, prestándole asistencia veterinaria y dándole la oportunidad de ejercicio físico y atendiéndole de acuerdo con sus necesidades fisiológicas y etológicas en función de su especie y raza.

2.- En todo caso, queda prohibido:

a) Maltratar a los animales o someterlos a cualquier práctica que les pueda producir sufrimientos o daños y angustia injustificados.

b) Abandonarlos.

c) Mantenerlos sin la alimentación necesaria para subsistir y/o en instalaciones inadecuadas desde el punto de vista higiénico-sanitario.

d) Practicarles mutilaciones, excepto las controladas por veterinarios en caso de necesidad, por exigencia funcional o para mantener las características de la raza.

e) Suministrarles alcohol, drogas o fármacos o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, aun cuando sea para aumentar el rendimiento en una competición.

f) Imponerles la realización de comportamientos y actitudes ajenas e impropias de su condición o que impliquen trato vejatorio.

g) Las peleas de perros y gallos.

h) Sacrificar animales en la vía pública, salvo en los casos de extrema necesidad y fuerza mayor.

3.- Los Departamentos competentes de las Diputaciones Forales podrán autorizar a las sociedades de tiro, bajo el control de la respectiva federación, la celebración de competiciones de tiro al pichón.

4.- El sacrificio de animales por razones sanitarias o en matadero se efectuará con utilización de mé-

dakarten eta oinazerik sortarazten ez duten metodoak erabiliko dira.

5.- Euskal kirol-ospakizunak egiteko oinarritzat etxeko animaliak erabili behar direnean, Eusko Jaurlaritzak, dekretu baten bidez, araudiz zehaztuko ditu bete behar diren baldintzak eta betebeharrak. Dena dela, idazpuru honetan zehaztu diren higiene, osasun eta elikadurazko baldintza berberak bete beharko dira, batez ere atal honetako 2.e) idazatian xedatutakoa.

6.- Herri ikuskizun eta jaietan animaliek parte hartu ahal izateko administrazioaren baimena beharko da, Eusko Jaurlaritzak emango duen araudiari jarraiki.

7.- Eusko Jaurlaritzak araudi bidez debekatu ahal izango du zakur-arraza jakin batzuk, hauen arriskugarritasuna dela eta, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko lurren mugartean haztea.

**5. atala.-**

Debekatua dago, halaber:

a) 14 urtez beherakoei edo ezinduei animaliak saltzea, ematea edo uztea, haien guraso-agintea edo zaintza duen pertsonaren baimenik gabe.

b) Animalien kalez kaleko salmenta, baimenduak dauden merkatu edo azoketatik kanpo.

c) Animaliak laborategiei edo klinikei saltzea administrazioaren kontrolik gabe.

d) Animaliak salmentak bultzatzeko sari edo ordain gisa ematea, animalien ordainbidezko eskualdaketaren ondorio diren negozio juridikoak salbu.

**6. atala.-**

1.- Animaliek, batetik bestera eramaterakoan, nahikoa toki izan beharko dute. Garraiabideek edo estalkiek animaliak babesteko eta eguraldi-aldaketa handietatik begiratzeko prestatuak egon beharko dute, eta estalkietan adierazi egin beharko da barruan animalia biziak daudela. Garraioa beharrezko diren segurtasun-neurriekin egingo da.

2.- Garraiatzerakoan animaliei begiratu egin beharko zaie eta janari egokia emango zaie egokitzen zaien orduetan.

3. Animaliak garraiatzeko tokiak higiene eta osasunezko baldintza egokiak izan beharko ditu, eta intsektuz eta infekzio-bidez behar bezala gabetua egon beharko du.

4 Nolanahi ere, Europako Elkarteko arauak eta

todos que provoquen una pérdida de consciencia inmediata y no impliquen sufrimiento.

5.- Reglamentariamente, por decreto del Gobierno Vasco se determinarán las condiciones y requisitos necesarios para la celebración de aquellas modalidades del deporte rural vasco que conlleven la utilización, como elemento básico, de animales domésticos. En cualquier caso, se observarán para éstos las mismas condiciones higiénico-sanitarias y de alimentación preceptuadas en el presente título, especialmente lo dispuesto en el apartado 2.e) de este artículo.

6.- La participación de animales en espectáculos y manifestaciones populares quedará sometida a la pertinente autorización administrativa, de conformidad a lo que reglamentariamente establezca el Gobierno Vasco.

7.- El Gobierno Vasco podrá mediante reglamento prohibir la cría en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco de determinadas razas caninas en razón de su peligrosidad.

**Artículo 5.-**

Queda igualmente prohibida:

a) La venta, donación o cesión de animales a menores de catorce años o a incapacitados sin la autorización de quien tenga la patria potestad o la custodia.

b) La venta ambulante de animales fuera de los mercados y ferias autorizados.

c) La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.

d) Hacer donación de los mismos como reclamo publicitario, premio o recompensa, a excepción de negocios jurídicos derivados de la transacción onerosa de animales.

**Artículo 6.-**

1.- Los animales deberán disponer de espacio suficiente si se les traslada de un lugar a otro. Los medios de transporte o los embalajes deberán ser concebidos para proteger a los animales de la intemperie y de las diferencias climatológicas acusadas, debiendo llevar estos embalajes la indicación de la presencia de animales vivos. Su traslado se hará con las medidas de seguridad necesarias.

2.- Durante el transporte los animales serán observados y recibirán una alimentación apropiada a intervalos convenientes.

3.- El habitáculo donde se transporten los animales deberá mantener unas buenas condiciones higiénico-sanitarias, debiendo estar debidamente desinsectado y desinfectado.

4.- En todo caso se cumplirá la normativa de la Co-

nazioarteko itunetan gai horri buruz aipatzen dena bete beharko da.

7. atala.-

Edozein motatako komunikazio-euskarritan animalien irudi ankerrak, tratu txarra ematen zaienekoak edo oinazea adierazten dutenak fotografiatu, filmatu edo grabatzeko, autonomi administrazioko organo aginpidedunari alde aurrez eman beharko zaio jakitera, ematen zaiela itxuratzen denez mina benetan itxura hutsean geratzen dela egiaztatu ahal izateko.

8. atala.-

1.- Animaliaren edukitzailea izango da animaliak sortzen dituen kalte, hondamen eta enbarazoen erantzule, Kode Zibilaren 1.905. atalean ezarritakoaren arabera.

2.- Animaliaren edukitzaileak neurri egokiak hartu beharko ditu kaleetan eta leku publikoetan gorotzik geratzea eragozteko

3.- Animaliaren edukitzaileak, edo honen baimena duenak, hala gertatuz gero, animalia galdu zaiolako salaketa egin beharko du.

## II. IDAZPURUA
### Etxeko animaliak, etxekotutakoak eta basati gatibuak

## LEHENENGO ATALBURUA
### Arau orokorrak

9. atala.-

1.- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Osasun Sailak lege honetan esaten diren animaliei txertoak ipintzea, nahitaezko tratamenduak eta hilketa behartu ahal izango dituzte, animalien osasun edo osasun publikoko arrazoiak direla eta.

2.- Albaitariek, beren lanbideko ihardunean, nahitaezko tratamenduak jartzen badizkiete animaliei, artxiboan eduki beharko dute tratatutako animalia bakoitzaren fitxa klinikoarekin, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Osasun Sailak araudiz zehazten duten modura; artxibo hori foru-organo aginpidedunaren eta toki-mailako eta osasun-agintarien esku egongo da.

10. atala.-

1.- Batagatik edo besteagatik txakurrak dituztenek erroldatu egin beharko dituzte ohizko bizilekuetako udaletan, hilabeteko epean, animalia jaio edo erosi zenetik hasita. Animaliak derrigorrez eta beti eraman beharko du errolda-identifikazioa. Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Osasun Sailak laguntzako beste animalia batzuei ere zabaldu ahal izango diete atal honetan ezartzen dena, egoki eritziz gero.

munidad Europea y la derivada de los tratados internacionales aplicables en la materia.

Artículo 7.-

La filmación, fotografiado o grabación en cualquier tipo de soporte comunicativo de escenas de crueldad, maltrato o sufrimiento de animales requerirá de la comunicación previa al órgano competente de la Administración autonómica a efectos de la verificación de que el daño aparentemente causado es, en todo caso, simulado.

Artículo 8.-

1.- El poseedor de un animal será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 1.905 del Código Civil.

2.- El poseedor de un animal deberá adoptar las medidas necesarias para impedir que queden depositados los excrementos en las vías y espacios públicos.

3.- El poseedor de un animal, o persona por él autorizada, deberá denunciar, en su caso, su pérdida o extravío.

## TÍTULO II
### De los animales domésticos, domesticados y salvajes en cautividad

## CAPÍTULO PRIMERO
### Normas generales

Artículo 9.-

1.- Los Departamentos de Agricultura y Pesca y de Sanidad del Gobierno Vasco podrán imponer la vacunación, el tratamiento obligatorio y el sacrificio de los animales a que hace referencia esta ley, por razones de sanidad animal o salud pública.

2.- Los veterinarios que en el ejercicio de su profesión dispensen a estos animales tratamientos obligatorios llevarán un archivo con la ficha clínica de cada animal tratado, en la forma que reglamentariamente se determine por los Departamentos de Agricultura y Pesca y de Sanidad, el cual estará a disposición del órgano foral competente y de las autoridades locales y sanitarias.

Artículo 10.-

1.- Los poseedores de perros, que lo sean por cualquier título, deberán censarlos en el Ayuntamiento del municipio donde residan habitualmente, dentro del plazo de un mes a partir de la fecha de nacimiento o adquisición del animal. El animal deberá llevar necesariamente su identificación censal, de forma permanente. Los Departamentos de Agricultura y Pesca y de Sanidad podrán extender la aplicación de lo dispuesto en este apartado a otros animales de compañía, si así se considerara conveniente.

2.- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Osasun Sailak araudiz ezarriko dute nola egin behar diren identifikazioa eta erroldа, animalia bazter uzten bada edo galtzen bada ahalik eta azkarren jakiteko nongoa den.

**11. atala.-**

1.- Euskal Autonomi Elkarteko udalek eta osasun publikoari edo animalien osasunari buruzko aginpidea duten agintariek animaliak barneratzeko eta/edo isolatzeko aginduko dute, gizakiari edo gainerako animaliei kutsa diezazkieketen gaitzak diagnostikatu edo sintomak somatzen bazaizkie, bai sendatzeko tratamendua emateko edo baita, beharrezkoa bada, hiltzeko ere.

2.- Gizakiari eraso egin dioten animaliak barneratzeko eta/edo isolatzeko agindua ere eman ahal izango dute animalia aztertzeko eta, beharrezkoa bada, aurreko atalean aurrikusten diren neurriak hartzeko.

**12. atala.-**

Udalak ahaleginduko dira herriko lorategietan eta parkeetan txakurrak paseatzeko eta txakurren aisialdirako leku egokiak eta behar bezala seinaleztatuak prestatzen

**13. atala.-**

Indarrean dagoen osasun-araubideak ezarriko du, janariak egin, saldu, bildu, garraiatu edo erabiltzen diren lokaletan, ikuskizun publikoetan, igeritokietan eta antzeko lekuetan animaliak sartu, egon eta herri-garraioetan eraman daitezkeen ala ez.

## BIGARREN ATALBURUA
### Animaliak bazter uztea eta animalia-biltegiak

**14. atala.-**

Bazter utzitako animaliatzat joko da jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daramana eta bakarrik dabilena, bai eta, identifikaziorik eraman arren, jabeak edo arduradunak galdu egin dela jakinarazi ez duena ere.

**15. atala.-**

1.- Udalen eta foru-aldundietako sail aginpidedunen egitekoa izango da bazter utzitako animaliak eta, identifikazioa eraman arren, edukitzailearen zaintzarik gabe noraezean dabiltzanak jasotzea, berreskuratu, jabe berri bati eman edo hil ditzaten arte

2.- Horretarako, udalek langileak eta toki egokiak izan beharko dituzte edo, eduki ezean, administrazioarekin elkarlanean ari diren animaliak babesteko eta aldezteko elkarteekin, udalen gainetik

2.- Reglamentariamente se establecerá por el Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco la modalidad de identificación y registro, a fin de conseguir una más rápida localización de la procedencia del animal en caso de abandono o extravío.

**Artículo 11.-**

1.- Los Ayuntamientos y las autoridades competentes en materia de salud pública o sanidad animal de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán ordenar el internamiento y/o aislamiento de los animales en caso de que se les hubiera diagnosticado o presentasen síntomas de enfermedades transmisibles tanto para el hombre como para otros animales, ya sea para someterlos a un tratamiento curativo o para sacrificarlos si fuera necesario.

2.- Igualmente ordenarán el internamiento y/o aislamiento de aquellos animales que hubieren atacado al hombre para su observación y adopción, en su caso, de las medidas previstas en el apartado anterior.

**Artículo 12.-**

Los Ayuntamientos procurarán habilitar en los jardines y parques públicos espacios idóneos, debidamente señalizados, para el paseo y esparcimiento de los perros.

**Artículo 13.-**

La entrada y permanencia de animales en locales destinados a la elaboración, venta, almacenamiento, transporte o manipulación de alimentos, espectáculos públicos, piscinas y otros establecimientos o lugares análogos, así como su traslado en medios de transporte públicos, estarán sometidos a la normativa sanitaria vigente al respecto.

## CAPÍTULO SEGUNDO
### Del abandono y de los centros de recogida de animales

**Artículo 14.-**

Se considerará animal abandonado aquel que no lleve ninguna identificación del origen y del propietario, ni vaya acompañado de persona alguna, así como aquel que, portando su identificación, no haya sido denunciado su extravío por su propietario o persona autorizada.

**Artículo 15.-**

1.- Corresponderá a los Ayuntamientos y Departamentos competentes de las Diputaciones Forales la recogida de los animales abandonados y de aquellos que, aun portando su identificación, vaguen libremente sin el control de sus poseedores, reteniéndolos hasta que sean recuperados, cedidos o sacrificados

2.- A tal fin, los Ayuntamientos deberán disponer de personal e instalaciones adecuadas o concertar la prestación de dichos servicios con asociaciones de protección y defensa de los animales colabo-

dauden erakundeekin edo foru-aldundietako organo aginpidedunekin hitzarmenak egin beharko dituzte zerbitzu horiek izateko.

16. atala.-

1.- Identifikaziorik gabeko animalia bat jasota edukitzeko epea hogeita hamar egunekoa izango da gutxienez. Epe hori igaro ondoren inork erreklamatzen ez badu, animalia eskuratu, jabe berri bati eman edo hil egin ahal izango da.

2.- Animaliak identifikazioa baldin badarama, jabeari animalia jasota dagoela ziurtaraztea-indarrez jakinaraziko zaio eta 7 laneguneko epea emango zaio berreskuratzeko, animaliak biltegian sortarazitako gastuak ordaindu beharko dituela eraman aurretik. Epe hori igaro ondoren jabeak berreskuratzen ez badu, aurreko atalean aipatu dena egingo da animaliarekin.

17. atala.-

1.- Dagokion araubidean adierazten diren osasun-arrazoiak direnean izan ezik, edukitzaile pribatu bat aurkitzeko arrazoizkoa den guztia egin eta ezer lortu ez eta animalia-biltegietan denbora luzeagoz edukitzea ezinezkoa denean bakarrik erabakiko da herri-administrazioen esku dauden animaliak hiltzea.

2.- Animalia bat hil beharra baldin badago, konortea berehala galtzea dakarten eta oinazerik sortarazten ez duten metodoak erabiliko dira.

3.- Animalia albaitariaren kontrolpean eta erantzukizunpean hil beharko da.

4.- Eusko Jaurlaritzak, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Osasun Sailak elkar hartuta proposamena egin ondoren, araudi bidez ezarriko ditu hiltzeko erabili behar diren metodoak, Europako Elkarteko araubideari jarraiki.

18. atala.-

1.- Animalia-biltegiek, direla udalarenak, udal mailaz gainekoak, foru-aldundienak edo animaliak babesteko eta aldezteko elkarteen jabegokoak, foru-organoen mende dauden albaitaritza-zerbitzuen kontrolpean egon beharko dute. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Foru-aldundietako erregistroan izena emanda edukitzea.

b) Errolda-liburua izatea eta behar bezala betetzea; animaliak noiz sartu eta atera diren adierazi beharko da liburu horretan, bai eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak araudi bidez ezar ditzan gainerako xehetasunak ere.

radoras de la Administración, con entidades supramunicipales o con los órganos competentes de las Diputaciones Forales.

Artículo 16.-

1.- El plazo de retención de un animal sin identificación será como mínimo de treinta días naturales. Transcurrido dicho plazo sin que fuere reclamado, el animal podrá ser objeto de apropiación, cedido a un tercero o sacrificado.

2.- Si el animal lleva identificación, se notificará fehacientemente su recogida o retención al propietario, quien dispondrá de un plazo de 7 días hábiles para recuperarlo abonando previamente los gastos que haya originado su estancia en el centro de recogida. Transcurrido dicho plazo sin que el propietario lo hubiere recuperado, se dará al animal el destino prevenido en el apartado anterior.

Artículo 17.-

1.- Al margen de las razones sanitarias reguladas en la normativa correspondiente, sólo se podrá sacrificar a los animales en poder de las Administraciones públicas cuando se hubiere realizado sin éxito todo lo razonablemente exigible para buscar un poseedor privado y resultara imposible atenderlos por más tiempo en las instalaciones existentes al efecto.

2.- Si un animal ha de ser sacrificado deberán utilizarse métodos que provoquen una pérdida de consciencia inmediata y no impliquen sufrimiento.

3.- El sacrificio deberá efectuarse bajo el control y la responsabilidad de un veterinario.

4.- Reglamentariamente, el Gobierno Vasco, a propuesta conjunta con los Departamentos de Agricultura y Pesca y de Sanidad, en el marco de la normativa de la Comunidad Europea, establecerá los métodos de sacrificio a utilizar.

Artículo 18.-

1.- Los establecimientos de recogida de animales, sean municipales, supramunicipales, de las Diputaciones Forales o de propiedad de las asociaciones de protección y defensa de los animales, deberán estar sometidos al control de los servicios veterinarios oficiales dependientes de los órganos forales. En todo caso, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar inscritos en el Registro que existirá en las Diputaciones Forales.

b) Llevar, debidamente cumplimentado, un libro de registro en el que figurarán los datos relativos a las altas y bajas de animales producidas en el establecimiento y cualquier otra incidencia que reglamentariamente se establezca por el Departamento de Agricultura y Pesca del Go-

c) Jarritako helburuak lortu ahal izateko higiene eta osasunezko baldintza egokiak izan beharko ditu biltegiak.

d) Behar bezalako albaitaritza-laguntza izan beharko du.

2.- Bikegi honetan neurri zorrotzak hartu beharko dira dauden animalien artean kutsapenik gerta ez dadin.

HIRUGARREN ATALBURUA
Haztegiak, salmentarako tokiak eta animaliak aldi batez edukitzeko tokiak

19. atala.-

Animaliak hazi edo saltzen dituzten tokiek, animalia-egoitzek, trebakuntza-zentroek eta animaliak aldi batez edukitzeko tokiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gainerako erabakietan ezarri dakizkiekeenen kaltetan gabe:

a) Egoitza edo zentroa dagoen lurralde historikoko foru-organo agintpidedunaren baimena izatea.

b) Errolda-liburua izatea eta liburu hori administrazio agintpidedunen eskueran egotea; liburuan adieraziko dira dauden animalien datuak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailak, araudi bidez, egoitza, zentro eta animalientzat ezartzen dituen kontrolak.

c) Higiene eta osasunezko baldintza egokiak izatea eta bertan dauden animalien behar fisiologikoetarako lokal egokiak izatea.

Animalia-mota bakoitzarentzat gutxieneko neurri eta antolabideak araudiz zehaztuko dira, gai horri buruz Europako Elkartean indarrean dagoen arauhidearen arabera.

d) Albaitaritza-zerbitzuaren laguntza izatea.

e) Zakurrak trebatzeko era bateko eta besteko moduei buruzkoan, trebakuntza-zentroa dagoen lurralde historikoko foru-organo agintpidedunaren baimena izatea.

20. atala.-

Animalia-egoitzek, trebakuntza-zentroek eta laguntzako animaliak aldi batez edukitzeko tokiek, honako baldintza hauek bete beharko dituzte, aurreko atalean adierazitakoaz gainera:

a) Animalia sartzen denetik zentroko albaitaritza zerbitzuak animaliaren egoerari buruzko iritzia eman arte, isolatuta edukitzeko egoitza egokiak izatea.

bierno Vasco.

c) Reunir las adecuadas condiciones higiénico-sanitarias para la consecución de sus fines.

d) Disponer de la debida asistencia veterinaria.

2.- En estos centros deberán extremarse las medidas para evitar contagios entre los animales residentes.

CAPÍTULO TERCERO
Criaderos, establecimientos de venta y centros para el mantenimiento temporal de animales

Artículo 19.-

Los establecimientos dedicados a la cría o venta de animales, así como las residencias, los centros de adiestramiento y demás instalaciones cuyo objeto sea mantener temporalmente a animales, sin perjuicio de los exigidos por otras disposiciones que les sean de aplicación, deberán cumplir los siguientes requisitos generales:

a) Estar autorizados por el órgano foral competente del territorio histórico en cuyo ámbito se ubique el establecimiento o centro.

b) Llevar un libro de registro a disposición de las Administraciones competentes en el que constarán los datos relativos a los animales existentes, así como los controles que sobre el establecimiento, centro y animales reglamentariamente se establezcan por el Departamento de Agricultura y Pesca.

c) Disponer de buenas condiciones higiénico-sanitarias y locales adecuados a las necesidades fisiológicas de los animales que alberguen.

Reglamentariamente se determinarán las medidas e instalaciones mínimas para cada tipo de animal, de conformidad con la normativa comunitaria vigente en la materia.

d) Contar con la asistencia de un servicio veterinario

e) En relación con las distintas modalidades de adiestramiento de perros, contar con la autorización del órgano foral competente del Territorio Histórico en cuyo ámbito se ubique el centro de adiestramiento.

